

Hernanik kronika

TOKIKOM

2014ko urtarrilaren 26a, igandea::: 4.625 zk. ::: www.kronika.net

ZERGA POLITIKA EZTABAIDAN:

Itziar Miner, zerga sistema eta fiskalitateari buruz /4-5



ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Hernaniko taldea aurkeztu zuten atzo, Biterin

Herritarrei ekimenaren berri eman zieten eta deitu dituzten bi asanbladetan parte hartzera gonbidatu zituzten.

KRISI egoerari aurre herritik egin behar zaiola dio Eskubide sozialen kartak. Euskal Herri mailan sortu zen ekimena eta herrietara ekarri dute azken hilabeteetan. Hernanin taldea azaroan osatu zen eta atzo aurkeztu zuten Biterin. Taldeak azaroan bertan egin zuen aurreneko bilera, eta geroztik, zenbait eragilerekin bildu dira. Orain herritarrei zabaldu diete deia, euren ekarpenak egin eta guztien artean eskubide sozioekonomikoak eta demokratikoak adosteko. Bi asanblada deitu dituzte; otsailean eta martxoan izango dira, larunbatez. /3

❖ IGERILEKUA

Ur ludoteka gaur, eta eguerditik aurrera itxita

Ume eta gurasoek uretan jolasteko aukera izan dezaten ur ludoteka antolatu du Udalak gaur, 10:00etatik 12:00etara. Bestalde, waterpolo partiduak direla eta, igerilekua itxita egongo da eguerdiko 12:00etatik aurrera. ||

❖ ZINEA

Bi pelikula, gaur

Blue Jasmine pelikula jarriko dute Biterin gaur, 12 urtetik gorako gaztetxoentzat, 19:30-etan hasita. Adin guztietarako saioan, *Turbo* pelikula izango da ikusgai, 16:30etan. ||

❖ ZILEGI ESKOLAK

Andoni Lubakiren hitzaldia, etzi

AEKko Zilegi Eskolen barruan hitzaldia emango du etzi Andoni Lubaki urretxuarrrak. Fotokazetaritzara dedikatzen da, eta azaroan 'Chris Hondros Saria' jaso zuen Sirian ateratako argazkiengatik. /6-7

GAUR KRONIKAN

Bola:

Tiraldia gaur Ereñotzun /2

Erugbia:

Hernani-Santboiana, gaur /2

Eskelak /2

Literatur Txokoa

Twist liburua /3

Film laburrak:

Joxean 's hil eben /8



Bi metrora iritsi zen ura Landaren. Argazkian ura jaisten hasia zen, eta barandila juxtu-juxtu ageri zen.

Urak hartu zituen atzo, Urumea bazterrak

AZKEN egunetan euri asko hartu zuen Urumeak, eta ostiraleko euri jasek alerta naranja aktibatu zuten. Gauerdia pasata egin zuen gainezka Urumeak Hernanin. Erriberak, ibai bazterrak... bete ziren urez, eta baita Landare eta Zubipe zelaia ere; futbol partiduak bertan behera geratu ziren. Iluntzean desaktibatu zuten alerta, eta gaur ez da euririk espero. /2

COMILLAS (Cantabria) Urtarriletik Apirilaren 11ra 2 gau Posada batean gosaria barne + Cacerasera sarrak + 2 heidu + 2 ume		150 ¹⁰⁰ €	ASTE SANTUAN		
LA HABANA Martxoan Bilbotik hegaldia + 6 gau 4* Hotelean gosaria barne	645 ¹⁰⁰ €	EXTREMADURA Apirilaren 17tik 21era Donostiatik autobusa + 4 gau Caceras en 3* Hotelean pentisio erdian + bitak	346 ¹⁰⁰ €		
KRUZERO CARIBE Martxoaren 15. 22 eta 29an Madriddik hegaldia + 7 gaueko kruzeroa TI	1010 ¹⁰⁰ €	CROACIA Apirilaren 17tik 21era Bilbotik hegaldia + 4 gau 3* Hotelean gosaria barne + bitak	679 ¹⁰⁰ €		
BOLIVIA Martxoan Madriddik hegaldia + 6 gau Imperio Inca-Lago Titicaca gosaria barne	1243 ¹⁰⁰ €	COSTA BRAVA Apirilaren 21etik 27ra 6 gau 4* Hotelean pentisio osoan	248 ¹⁰⁰ €		
NUEVA YORK - RIVIERA MAYA Maiatzaren 7tik 16ra Bilbotik hegaldia + 5 gau Nueva York + 5 gau Riviera Maya TI	1905 ¹⁰⁰ €	BRETAÑA-NORMANDIA Apirilaren 22tik 27ra Donostiatik autobusa + 4 gaueko atxikus 2* Hotelean pentisio erdian	452 ¹⁰⁰ €		
CORDOBA Maiatzaren 17tik 23ra 6 gau 3* Hotelean, gosaria barne	244 ¹⁰⁰ €				
IBIZA Maiatzaren 18tik 25era Bilbotik hegaldia + 7 gau apartamentuan	330 ¹⁰⁰ €				
MAIATZAN					
PARIS Apirilaren 30etik Maiatzaren 4ra Donostiatik autobusa + 3 gau 2* Hotelean gosaria barne	262 ¹⁰⁰ €				

EIZON BIDAIAK 2014
DESKONTU BEREZIAK
Aukera gehiago!
www.bidaibila.com

**HERNANI
BIDAIAK**
Urtarrilak 5
943 33 00 48

www.hernanibidaiak.com

Eguraldiak hobera egingo du gaur eta alerta egoera desaktibatu dute

Atzo gauerdia pasata aktibatu zuten alerta naranja eta urak atera egin ziren herriko hainbat puntutan. Iluntzerako alerta egoera desaktibatu egin zuten eta Añarbe ura askatzen hasi zen pixkanaka.

URUMEA ibaiak gainezka egin zuen atzo, gauerdia pasa eta berehala. Euri asko egin zen astelehenetik, 115 litrotik gora eta egoerak okerrera egin zuen ostiraleko azken orduetan, alerta naranja aktibatzeraino. Portu eta Karabelgo erriberetan atera zen ura lehendabizi; eta baita Landare eta Zubipe zelaietan, Ergobi inguruan, AHTren obretan...; hauek baitira, uholde arrisku gehien duten puntuak. Goizaldeko 02:00ak aldera ere, zertxobait atera zen

Fagollaga inguruan.

Goizean egoera baretu egin zen eta ibaiaren maila pixkana jaisten hasi zen. Eguerditik aurrera zaparradak espero ziren, eta euria egin bazuen ere, egoerak ez zuen okerrera egin. Iluntzerako alerta guztiak desaktibatu zituzten.

Euririk ez da espero gaur

Euriak atsedena eman, eta eguraldiak hobera egingo du gaur. Hala, eta pixkanaka,

ibaia bere onera etortzea espero da. Bihartik aurrera, eta asteazkenera bitartean, fronte berria espero da, eta euri dezente egin dezake.

Añarbe ura askatzen

Añarbeko urtegiak ateak itxita mantendu zituen atzo, alertak iraun bitartean. Iluntzean, Urumearen altura 1,9 metrora jaitsi zenean, ura askatzen hasi ziren. Pixkanaka eta proportzionalki hasi ziren urtegia hustutzen, beti ere, 2,1 metroko muga

gainditu gabe. Urtegia bete-betea zegoen atzo iluntzean, eta lekua egitea da helburua, bihartik aurrera espero den euria jasotzeko.

Errumaniarrak, kanpalekura bueltan

Alerta medio, Txoritegiko kanpalekuan bizi ziren errumaniarrak desalojatu egin zituen Udalak atzo goizaldeko 04:30ak inguruan. 27 pertsona ekarri zituzten, Udaltzaingoaren kotxeetan, Sandiusterrira. Bertan pasa zuten eguna

eta gaur kanpalekuetara itzuliko dira. Bihartik aurrera euri dezente espero da, eta berriz desalojatu behar izanez gero, Gabriel Zelaiara eramango dituzte.

Karabelen ez aparkatzea

Gaur ateri eutsiko badio ere, bihartik aurrera euri asko espero da. Hori horrela, prebentzio neurri gisa, Udaltzaingoak eskatu du Karabelen ez aparkatzea, batez ere gaez, arriskuaren aurrean jendea lasai egon dadin. ||

† ROSA ESNAOLA GURUCEAGA
(Cornelio Berasarteren alarguna "Putzueta")
Atzo hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -
Amona, beti gogoan izango zaitugu, zure abesti honekin:
"Allá en el rancho grande, allá dónde vivía...
Había una rancherita que alegre me decía..."
Zurekin bizitzako aldapa guztiak gainditzen ikasi dugu, agur AMONITA KUTTUNA
ALANO BASERRIKO ILOBAK: BEGOÑA ETA KEPA PAGAUAZURTUNDUA BERASARTE
Hernanin, 2014ko urtarrilaren 26an
OHARRAK: Bihar, astelehean, Putzueta Harategia itxita egongo da (Kardaberaz, 39)



† KONTXI IRAOLA ARRUABARRENA
ANDREA
Atzo hil zen, Hernanin, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -
Senarra: Mauri Santana; seme-alabak: Iñaki, Joxe Mari, Izaskun eta Maxi, eta Alberto; bilobak: Nerea, Asier, Maddi, Irati, Iker eta Leire; anai-arrebak: Miguel (†), Cristina, Milagros (†) eta Olatz; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzetezela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2014ko urtarrilaren 26an
Helbidea: Izpizua, 9
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur eguerdiko 13:00ak arte.



ESKERTZA
Angel Garcia Muñoz
Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -
Angelen seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.
ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK
Hernanin 2014ko urtarrilaren 26an



BOLA
Binakako tiraldia gaur, Ereñotzun
Goiz eta arratsalde jokatu da:
10:00-11:30 eta 16:30-17:30.
GAUR hasiko da Binakako Bola Txapelketa. Ereñotzun jokatu da aurreneko tiraldia, eta bertan izango dira inguruko bolari onenetsuenak. Goiz eta arratsalde jokatu da: 10:00-11:30 eta 16:30-17:30.
Bukatu berri den Taldekako Txapelketan Urnieta izan da onena, 519 brila botata. Atzetik, Segurak 512, Zerainek 505, Ategorrietak 498, CD hernanik 484, Elur Txorik 448 eta Ur Miak 423. ||

ERRUGBIA
Santboianaren kontra gaur, Hernani
Sant Boieko Aleu zelaian jokatu da, eguerdiko 12:00etan.
GAUR ekingo dio Hernanik lehiari, hilabete eta erdi ligako partidurik jokatu gabe egon eta gero. Sant Boieko Aleu zelaian jokatu dute partidua, Santboiana talde indartsuaren kontra. Eguerdiko 12:00etan hasiko da neurketa.
Santboiana espero baino denboraldi kaxkarragoa ari da egiten. Hernani aurretik da, eta gaur irabaziz gero, aldea haunditzeko aukera ederra izango dute. ||

† KONTXI IRAOLA ARRUABARRENA
- Goian Bego -
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.
IRAOLA PEÑA SENDIA
Hernanin, 2014ko urtarrilaren 26an



† KONTXI IRAOLA ARRUABARRENA
- Goian Bego -
Lore bat bezala joan zera udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.
ZURE BILOBAK: NEREA, ASIER, MADDI, IRATI, IKER ETA LEIRE.
Hernanin, 2014ko urtarrilaren 26an



† ESKERTZA
Lurdes Mateo Mujika
Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -
Lurdesen senarrak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.
ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK
Hernanin 2014ko urtarrilaren 26an



III. URTEURRENA
Hilario Soraluze Azkune
Gure bihotzean eta oroimenean jarraituko duzu beti. Maite zaitugu aitona.
ETXEKOAK: Inés, Aloña, Joseba, Iker eta Maddi
Hernanin, 2014ko urtarrilaren 26an





Atzoko aurkezpenean Biterin elkartu ziren eragile sozialak eta herritarrak.

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA - HERNANIKO TALDEAREN AURKEZPENA:**«Guztion eskubideak aldarrikatzeko, herritarron partehartzea beharrezkoa da»**

Biterin egin zuten aurkezpena atzo, taldea osatzen duten eragile ezberdinek. Herritar guztiei irekitako taldea dela azaldu eta partehartzearen garrantzia azpimarratu zuten. Bi asanblada deitu dituzte, otsailean eta martxoan.

KRISIARI aurre egiteko alternatiba herritik sortzea du helburu Eskubide sozialen kartak. Karta osatzeko aurreneko asanblada Bilbon egin zen, maiatzean. Euskal Herri osora zabaldu da handik, eta herri askotan sortu dira taldeak, tartean Hernanin. Herriko eragile ezberdinek egin zuten aurkezpena atzo Biterin, bertaratutakoak informatu eta parte hartzera gonbidatzeko intentzioarekin.

Gutunaren egitura bera azaldu zuten: «sarrera, oinarriak, eskubideak eta aldarrikapenak biltzen dira kartan, eta helburua da, azken bi horiek osatzea herritarrekin. Horregatik, partehartze aktiboa eskatzen da».

Bilerak eragileekin lehendabizi, eta herritar guztiekin hemendik aurrera Hernaniko taldea azaroan bildu zen aurreneko aldiz: «ELA eta LABeko kideak, lau herritar, irakasle bat, Bilgune Feministako kide bat... elkartu ginen hasierako bilera hartan. Kartaren nondik norakoak aztertu genituen, eta eztabaida herrira eramane behar zela erabaki genuen. Lehendabizi, eragile ezberdinekin elkartu ginen, horien artean, STOP Kaleratzeak, AMHER, Pentsionisten kolektiboa, Bilgune Feminista eta Gazte Asanbladarekin. Eta orain, asanblada irekiak antolatuko ditugu, nahi duten herritar guztiek parte hartu dezaten».

«Sarrera, oinarriak, eskubideak eta aldarrikapenak biltzen dira kartan, eta helburua da, azken bi horiek osatzea herritarrekin. Horregatik, partehartze aktiboa eskatzen da»

Eragileen ikuspuntua

Hasierako azalpenen ostean, Hernaniko taldeko zenbait eragilek hartu zuten hitza, beraien ikuspuntua emate aldera.

Bilgune Feministako Maialen Adurizek esan zuen: «bestelako eredu bat posible da, eta eredu horrek ikuspegi feminista izatea beharrezkoa dela uste dugu. Alternatibak eta proposamenak emateko prest gaude, eta denei gonbidatzen zaituztegu, parte hartzera».

Kaleratzeak Stop taldearen izenean Jesusek hitz egin zuen: «hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuegu gonbidapenagatik. Hemen bildu garen guztiok dakigu beste eredu bat, beste mundu bat posible dela, justuagoa, solidarioagoa eta humanoagoa. Halako iniziatibak ospatu egin behar dira eta gu gure esku dagoena egiteko prest gaude».

Mirenek hartu zuen hitza segidan, Duintasuna pentsionista taldearen izenean: «gure

eskubideen alde egin nahi badugu, elkartzea ezinbestekoa da, indarrak batu behar ditugu. Minimo batzuk betetzea eskatzen dugu: bizitza duina izan nahi dugu, pentsio duinak, aisiaz gozatzeko aukera, osasun sistema publikoa izan, pentsio sistema gestionatzeko sistema propioa izan nahi dugu...»

Eta bukatzeko, Gazte Asanbaldako kide den Aingeru Otxotorenak hitz egin zuen: «gazteok gurasoen etxean bizitzera behartuta gaude, ez dugu independizatzeko aukerarik, lanik ez dago... Erantzunak eta alternatibak behar ditugu. Guretzat ezinbestekoa da ekimen honen parte izatea, guztion eskubideak kolokan baitaude».

Bi asanblada, epe motzean

Eskubide sozialen karta hiru bloketan banatuta dagoela azaldu zuten: eskubide sozioekonomikoak, eskubide demokratikoak eta erabakitzeko eskubidea. Azken hau hartuko dute oinarri beste biak garatzeko, eta herritarrei epe motzera antolatu dituzten bi asanbladetan parte hartzeko deia luzatu diete. Otsailaren 22an deitu dute aurreneko asanblada, eskubide sozioekonomikoen inguruan aritzeko. Bigarrena, martxoaren 15ean izango da, eta bertan landuko dute eskubide demokratikoaren atala. Bi asanbladak Biterin izango dira, goizeko 10:00etatik, eguerdiko 13:00etara. ||

Literatur txokoa

Bultzatzaileak:

dobera
EUSKAL ERAGILEAKHernaniko
Udal Liburutegia**LEIRE GOÑI IRADIK
GOMENDATZEN DIZU****TWIST**Harkaitz Cano
Susa**Zurrumbiloan**

Diego Lazkanok bizitza lasaia darama. Behinola, arrakasta izan zuen liburu bat argitaratu zuen, baina ez besterik.

Itzultzaile lanetan ibiltzen da orain. Batzuetan, ordea, lasaitasun horrek ihes egiten dio. Izan ere, sarri gogoratzen da gaztetako lagunekin, Soto eta Zeberioekin, alegia. Bahitu, torturatu eta desagerrarazi egin zituzten, eta Lazkanok asko daki horren inguruan. Askotan, haien partez bizi behar duela sentitzen du. Noiz edo noiz horrela izan da gainera, eta horrek ez dio mesederik egingo lagunaren desagertzearen errudunak aurkitzeko ikerketa irekitzen denean. Bestalde, Gloriarekin elkartzeko da noizbehinka; gaztetako lagun eta maitale harekin. Nahigabe, hark ere gehiago nahastuko dio bizitza. Izan ere, aitari iheska ibiltzen da beti Gloria, frankista amorratua baita hura. Baina diru premia duenez, aitak antolatutako antzerki obra batean parte hartuko du, eta Diegori eskatuko dio gidioia itzultzeko. Aitarene baldintza bakarra: laguna aktore onartzea. Diegori, ordea, ezaguna egingo zaio haren ahotsa, eta hotzikara batek zeharkatuko dio gorputza...

Liburua gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: dobera@dobera.com edo liburutegi@hernani.net. Edo paperean eramane Doberara edo Udal Liburutegira.

**TXANTXILLA
HERNANI****SALGAI****AZKEN ETXEAK**

- 3 gelakoak
- terrazak
- sukaldearekin

GARAJEAK

- garaje itxiak
- 21 m² -koak
- erdialdean

Informa zaituz!

Informazioa

943 42 95 21

U.T.E. TXANTXILLA

ERAGILEAK

Zerga politika eztabaidan - Itziar Miner:

«Asko baldintzatzan du BEZa bezalako zergen eskumena ez izateak»

Zerga sistema eta fiskalitateari buruzko hitzaldia antolatu zuen ostegunean Natzak. Itziar Miner ereñotzuarra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga eta Finantza Politikako zuzendaria izan zen gonbidatua eta EH Bilduk Gipuzkoan jarri duen ereduaren berri eman zuen. Egindako aldaketa eta proposamenak azaldu zituen, besteak beste. Kontraerreforma ere izan zuen hizketagai eta horren ondorioz, 26 milioi gutxiago bilduko dela kalkulatu dute.

«ZERGA politika ikusi behar dugu herria antolatzeko tresna bezala. Babes soziala eta zerbitzu publikoak ziurtatzeko tresna da eta ereduaren inguruko adostasun bat beharko genuke; eredu horren arabera, baliabideak eskuratuko dituen sistema finkatuz. Horretarako eztabaida publikoa beharrezkoa da eta baita erakundearen kontrola eta gardentasuna ere», azaldu zuen Itziar Miner Gipuzkoako Diputazioko Zerga eta Finantza Politikako zuzendariak ostegunean. Natzak antolatutako hitzaldian eman zituen azalpenak zerga sistema eta fiskalitatearen inguruan.

Zerga politikaren ereduaren inguruan eztabaida piztu da EH Bilduk egindako aldaketengatik, baina ez dela arrazoi bakarria azpimarratu zuen Minerrek: «Fiskalitatea mahai gainean jarri da krisiaren eraginez, sarrerak asko gutxitu direlako. Baina azken hamar-



Itziar Miner Gipuzkoako Diputazioko Zerga eta Finantza Politikako zuzendaria.

kadetan egin diren aldaketek ere sekulako eragina izan dute. Aldaketa horiek eragin dute sistema fiskala ahultzea. Gero eta gehiago langileen bizkar utzi da zama eta kontsumoa zergapetzen duten zergetara bideratu da tributazioa (BEZ-IVA, besteak beste). Beste errenta mota batzuk, berriz, enpresen irabaziak, kapital irabaziak, aberatsen tributazioa etabar, ahulduz joan dira. Orain krisiak azaleratu du hori dena. Sistema ez zen nahikoa egoerari erantzuteko. Beraz, ezin dira urte pare bateko kontu bezala, zerga batzuk aldatu, beharrezko aldaketa behar da, ezastrukturala. Nahi dugun ongizate estatua eraikitze beharrezkoa da zerga sistema askoz sendotzea. Eta posible da».

Minerrek argi utzi zuen EH Bilduren zerga erreformaren abiapuntua azken urteetako norabidearekin amaitzea dela: «Lan errentetan oinarritzen den zerga sistema aldatu nahi dugu». Argitu zuen beraien aldaketek ez diotela jende xumeari eragiten, baizik irabazi haundiak dituzten enpresei eta aberatsei edo fortuna haundiak dituztenei, besteak beste.

«Azken urteetan oso nabarmena izan da, zerga sistemaren bilketa bideratua izan dela langileek ordaintzen dituzten zergetara eta BEZera. Desoreka hori, orekatze bidean jarri nahi dugu»

«Ekitatearekin esan nahi da, jasotzen diren errentengatik berdinduz ordaintzea, edozein izanda ere beraien iturria»

«Dedukzio batzuk ez dutenez mugarik, gertatzen da 50 milioi irabazten dituen enpresa batek ezer ez ordaintzea»

Subiranotasun falta

Aurrera eraman nahi duten aldaketarako, gabezi batzuk badirela azpimarratu zuen: «Euskal Herrian subiranotasun

falta handia dago eta ezin ditugu hainbat gaietan erabakiak hartu: finantza sisteman, lan harremanetan (erreforma laboralak), babes sozialean... Zerga politikan, ekonomi itunaren ondorioz, kompetentzi asko ditugu, baina osotasunean ez. Zeharkako zergak, hau da, kontsumoa zergapetzen duten zergen eskumena, esaterako, ez dago EAEko foru aldundietan ezta Nafarroan ere. Arauak Madrilen egiten dira eta horrek asko baldintzatzan du. Azken urteetako, BEZaren igoera, esaterako. Horrek guztiak lotuta uzten zaitu gainerako zergen aurrean».

Hala ere, ahal duten urrats guztiak ematen ari direla gaineratu zuen.

Gehien daukanak gehiago ordaintzea

Zerga sistemak, sektore publikoaren oinarri izan behar duela nabarmendu zuen berriz: «Nola? Gehien daukanak ekarpen haundiagoa eginda. Aberastasunaren birbanaketa planteatzen dugu bi printzipiotan oinarrituta: ekitatea eta progresibitatea. Ekitatearekin esan nahi da, jasotzen diren errentengatik berdinduz ordaintzea, edozein

izanda ere beraien iturria. Progresibitatearekin, berriz, zenbat eta gehiago irabazi, proportzio haundiagoan ordaindu behar izatea».

Eta gogorarazi zuen zergak denok ordaindu behar ditugula: «Oso garrantzitsua eta beharrezkoa da, zilegitasun bat izateko. Elusio bideak moztu behar dira eta iruzurra harrapatu. Horretarako, gauza bat da ogasunek edo legegileek lege egokiak egitea, baina baita ere herritarrek ulertzea zergen garrantzia».

Iruzurra eta elusioaren aurka, hainbat neurri

Iruzuraren aurka, eguneroko jardunean hainbat pauso eman dituztela azaldu zuen Minerrek: «inspektoreei euren lana egiten uzten ari gara; baliabide pertsonal gehiago jarriko ditugu Ogasunean, 10 lanpostu berri sortuko dira ikuskaritzan, batez ere; eta arrisku bereziko zergadunen errolda sortu da. Elusioari dagokionean, legeak egiten dituenaren ardura da, baina saiatu gara zirrikituak ezabatzeko. Dena dela, kudeatu behar ditugu besteak onartutako hainbat zerga eta ahal duguna egiten ari gara».

Errentetatik jasotzen denaren %86, soldatetatik

Zergak lau miltzotan sailkatu zituen Minerrek: Errentaren arabera (soldatengatik biltzen dena, interesengatik... PFEZ); Kontsumoaren arabera (mundu guztiak ordaintzen duena, bai kontsumo orokorragatik (BEZ) bai kontsumo bereziagatik (alkohola, gasolina, tabakoa...)); irabazien arabera (sozietateek ordaintzen dituztenak); eta ondasunen, patrimonioaren arabera (abertsek ordaintzen dituztenak edo herritarrek IBIa edo kontribuzioa).

Zergaren banaketa bi plannotan ikusten dutela azaldu zuen: «Batetik, enpresen irabazirik edo kapital errentetik trataera bat dute, eta bestetik, langileek ordaintzen dituzten zergak daude. Eta azken urteetan oso nabarmena izan da, zerga sistemaren bilketa bideratua izan dela langileek ordaintzen dituzten zergetara

eta BEZera. %38 errentetatik jasotzen da eta horietatik %86 soldatetatik dator. %38 ere BEZaren bidez jasotzen da eta %14 zerga berezien bidez. Beraz, oso nabarmen ikusten da zergak nork ordaintzen dituen. Gure proposamena da desoreka hori, orekatze bidean jartzea».

Ekitatearen bidean, errenta guztiak eskala berdinarekin arabera tributatzeko helburu Etorkizuneko erronkei buruz ere hitz egin zuen: «Aberastunaren tributazioan eta enpresen irabaziei dagokienean, gure posizioak finkatuta dauzkagu. Zeharkako zergetan, berriz, ez dugu momentuz eskumenik. Hori eskuratzeko euskal erakundeen artean urratsak eman beharko dira».

Eta errenta zergan, pentsatzen dute gauzak badaudela aztertze. «Bata da, oinarri bakarrera joatea, ekitate aldetik, errenta guztiak eskala berdinarekin arabera tributatzeko, baina hainbat urteetan emandako dinamikaren kontra doa eta azterketa haundiak eskatzen ditu. Horretan ari gara. Bestetik dago, familiaren inguruko tributazio guztia. Familia ereduak aldatzen doaz, kenkari (*deducción*) pila daude horrelako gaiekin erlazionatuta eta ikusi egin behar da. Proposamen berritzaileak badaude eta horiek aztertzen ari gara. Baita ere dago, etxebizitza kenkaria, eta herritar asko harrapatuta dago. Konpromiso batzuk hartu zituzten bere garaian etxeak erosteko, kenkari hauek zeudelako, eta orain kenkari horiek ikutzeak eragin handia izan dezake. Hausnarketa sakona behar da».

Gaineratu zuen baldintzak behar direla erreforma ausartagoak egiteko, «gaur egun ez daudenak».

Kontraerreformarekin atzera pausoa, Gipuzkoan

Joan den astean onartutako kontraerreforma ere izan zuen hizketagai Minerrek: «Itun fiskala sinatu zuten PNV eta PSE-EEK irailan, eta gero gehitu zaie PP. Guk oso nabarmen ikusi dugu ez zaiela gustatu gure norabidea eta lortzen ari ginen aliatuak. Moztu egin nahi izan dute bidea. Saldu nahi dute beraiek egiten duten politika fiskala bakarrik dela posible. Guk demostratzen dugu ezetz eta horretan sakondu nahi dugu. Erreforma hau erregresiboa da».

Orain, zergak nola geratu diren ere argitu zuen: «Hiru foru arauetan aldaketak egin dituzte. Errenta zergan, gutxi gorabehera, zegoen bezala utzi dute, gauza bat salbu:



Gaiak interesa piztu zuen herritarrengan eta asko izan ziren hitzaldira gerturatu zirenak.

kapital errenten tributazioa gutxitu dute. Hori horrela, Araba eta Bizkaian suposatuko du aldaketa bat, ekitate eta progresibitate aldetik hobetuko duena, baina Gipuzkoan atzera pausoa izango da.

Bestetik, sozietate zergan onartu duten araua da, lehen-

«Errenta zerga zegoen bezala utziko dute gutxi gorabehera, baina kapital errenten tributazioa gutxituko dute. Atzera pausoa da»

dik ere ahulduta dagoen sozietate zerga baino, gutxiago bilduko duen zerga bat. Ihes bide asko ere utzi dituzte eta kenkariak ez dute mugarik kasu batzuetan. Guretzat oso aldaketa atzerakorra da.

Eta aberastunaren tributazioan, egon da aldaketa

txiki bat herentzietan, baina ez du asko aldatzen egoera».

Hiru aldaketa hauek eragingo dutena honakoa izango omen da: «Zerga bilketa gutxituko da Gipuzkoan. 26 milioi euro gutxiago izango dela kalkulaten da momentu honetan».

ZERGAZ ZERGA, EH BILDUREN ALDAKETAK ETA PROPOSAMENAK

Errenta zerga PFEZ (%38 jasotzen da)

Onartuta, indarrean egon da, baina kontraerreformarekin, beste zerga bat onartu dute. Hala ere, ez du hainbesteko adaketa eragingo, Minerren esanetan.

Errenta zergan, EH Bilduk aldaketak sartu zituen 2011 eta 2012an. Horietan, Minerrek dio neurri garrantzitsuenak izan zirela, alde batetik, soldata altuenentzat zerga tasak igotzea. «Hau da, lehen topea zegoen %45ean 60.000 eurotik gora irabazten zutenentzat, eta hortik aurrera ez zegoen ezer. Sortu genituen 3 tarte berri eta orain %49arte dago tipoa, 175.000 euroko soldata baino altuagoak dituztenentzat».

Bestetik, kapital errenten tributazioa igo zuten. «Ekitate ikuspegitik, guk ikusten duguna da, errenta guztiak berdindatu behar dutela. Azken urteetan, kapital errentek askoz ere tributazio baxuagoa izan dute. %18an tributatu egon izan dira. Guk planteatu dugu eskala bat sortzea eta tipo altuena %25 izatea. Oraindik ez da oinarri bakarrera joatea lortu, baina pauso bat da bide horretan».

Horrez gain, errenta irregularren integrazioa mugatu dute (kirolarien tributazioa, besteak beste); elusioaren aurkako neurriak hartu dituzte: salbuespenak, murrizketak, kenkariak berriak... eta moduluen sistema mugatu dute.

Sozietateen irabazien gaineko zerga (% 7 jasotzen da)

Proposamena da, momentuz ez dago onartuta.

Minerrek azaldu zuen garai batean %25 bildzen zela zerga honekin, baina beheraka doala. «Guk pentsatzen dugu, sozietate irabazien zergapetzeko bi helburu bete behar direla: ehun ekonomikoa sendotzeko tresna batzuk izatea eta bilketa ahalmena igotzea. Horretarako, honako ezaugarriak ditu: enpresei aukera ematen die inbertsioa eta enplegarako erreserbaren pizgarri (*incentivo*) fiskala

lortzeko, inbertsioa eta I+G sustatuz. Horrez gain, lurraldean eta pertsonengan onurak sortzen dituzten ekintzak bultzatzeko pizgarriak izango dituzte (enplegu finkoa, berdintasuna, euskera, ingurumena, langileen parte hartzea bultzatuta...). Bestetik, garrantzia ematen zaio I+G lantzen duten enpresei eta kenkaria egitea planteatzen da, beti ere ziurtatuz zerga ordainduko dutela irabazien egonez gero. Beste ezaugarri bat da, enpresa haundiek ere ordaintzea zerga. Momentu honetan, enpresa haundienek ordaintzen dute gutxi. Horrez gain, gehiegikeriak ahalbideratu dituzten erregimen bereziak ezabatu nahi dira eta pizgarriak izan daitezela irabazien neurrikoak eta aplikatzeko modukoak».

Enpresa haundien tipo nominala %28 dela azaldu zuen Minerrek, baina benetan ordaintzen dutena, batzaz beste, %11,8 izaten dela. «Hau da, tipo nominalak ez dute ezer adierazten, gero kenkari pila bat edo inzentiboak baldin badaude. %28 hori bilakatzen da %11,8. Eta kenkari batzuk ez dutenez mugarik, gertatzen da 50 milioi irabazten dituen enpresa batek ezer ez ordaintzea».

Honen inguruan mamu asko sortu dela azaldu zuen: «sozietateen gaineko zerga haundiago batek enplegua kaltetzen duela, jarduera ekonomikoa kaltetzen duela... baina horrek ez dauka justifikaziorik. Zerga honek irabazien zergapetzten ditu, beraz, irabazietan dagoenak, enplegua sortu dezake edo sortu du».

Aberastunaren eta Fortuna haundien tributazioa (%2 jasotzen da)

Indarrean dago, parte haundienean

EH Bilduk agintera iritsi eta berehala, ondare zerga berreskuratu zuen. «Errenta zergan pausoa emateko, justifikatzen da hainbat aberatsei zergak ez ordainaraztea», dio Minerrek. Aurrena zerga zaharra onartu zuten, gabezi haundiak zituela pentsatu arren. 2 urte-

tarako izan zen eta 2012an proposamen berria egin zuten: Aberastunaren eta Fortuna haundien gaineko zerga. «Aldaketa oso esanguratsua izan zen. Elusioa baimentzen zuten zergei heldu genien. Lehen, ondare zergan ez ziren sartzen familiako enpresei lotutako partizipazioak edo jarduera ekonomiko lotutakoak. Orain, ondasun horiek ere konputatu behar dira, baina zati batean».

Beste zirrikitu bat ere bazegoen ingenieritza fiskalerako bide ematen zuena. Pertsona bati begiratzen zitzaion bere patrimonioa eta bere errenta, urtekoa. Orduan patrimonioagatik ordaindu behar ezin zuten gaintu urteko errentaren %60. Horrek aukera ematen zion pertsona mota horri ia ezer ez ordaintzeko ondare zergatik. Hori ezabatu dugu modu batean», azaldu zuen.

Zerga hau, azken egunetako gosaria izaten ari dela esan zuen: «Dirudienez, paktu fiskalaren bidez, atzera botatzen saiatuko dira. Eta hitz egiten ari gara, 7.000 zergadunetaz. Gipuzkoan hori ordaintzen duten herritarren kopurua, ez da iristen %1era. Ez du ia garrantziarik herritarrentzat eta hori aldatzeko sekulako makinaria ari dira martxan jartzen».

Herentzietan ere aldaketa batzuk egin dituzte. «Muga minimo bat jarri dugu. Ez da aberastun ikeragarria duen jendea eta eztabaida sortu du, baina jarri dugun muga ez da normala gaintzea eta ordaindu beharrekoa txikia da».

Horrez gain, ohiko etxebizitzak ez diren errekaruak ere arautu dituzte. Udalek dute erregulatze aukera.

Zeharkako zergak (%52 jasotzen da)

Minerrek azpimarratu zuen euskal instituzioek ez dutela eskumenik zeharkako zergak arautzeko. «BEZA Madriletik dator eta zerga bereziak Europatik. Izaera erregresiboa dute eta ez gaude igoyerarekin ados».

ANDONI LUBAKI - FOTOKAZETARIA:

«Argazkia ateratzen ari zarenean ikusle pribilegiatua zara»

Andoni Lubaki urretxuarra Hernanin izango da asteartean, AEK-k antolatutako Zilegi Eskolen barruan hitzaldia emateko. Siriako gerrako argazkiengatik "Chris Hondros Saria"

jaso zuen azaroan, baina beste hainbat gatazka ere gertutik ezagutu ditu. Bere esperientziaren berri emango du, 19:00etan hasita Biterin, eta galderak egiteko eskatzen dio jendeari.

Leire Goñi

ANDONI Lubaki argazkilari eta kazetari urretxuarrak azaroan jaso zuen Atlanta Photojournalism Seminar-ek ematen duen "Chris Hondros Memorial" saria, Best in Show sailean. 2012an Siriako Aleppo hirian egindako argazkiak saritu zituzten.

Horrez gain, beste hainbat gatazka ere bertatik bertara ezagutu ditu: Irak, Sahara, Libia... Euskal Herrian, ordea, gutxi ibiltzen dela dio, baina hala ere, badaki non jarriko lukeen enfokea: komunikabideetan gutxi azaltzen diren gai horietan, hain zuzen.

Lubaki Hernanin izango da datorren asteartean, hilak 28, hitzaldi bat emateko AEK-k antolatutako Zilegi Eskolen barruan. Bertan, ezagutu dituen herrialdeetako hainbat datu emango ditu, eta bere esperientziaren berri ere kontatuko du. Era berean, normalean «eskatutakoa» kontatzen duela dio, eta horregatik eskatzen dio jendeari galderak egiteko lasai, «ez baita erraza publikoak nahi duenarekin asmatzea, eta, gainera, nahiago dut solasaldia, hitzaldia baino!».

Fotokazetaritza egiten duzu. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela uste duzu?

Hitz bat ondo errepresentatzen duen argazkia aurkituko banu, horretxekin egongo nintzateke gustora. Sufrimendua erakusten duen argazki batekin ikusleak sufrimendu hori jasotzen badu, primeran.

Zeren bila aritzen zara argazki bat ateratzen duzunean?

Nik ikusi eta sentitu dudana ikusleak ere nik ikusi eta sentitu dudana modu horretan

«Etikoki beti pintzekin hartu behar den lana da gurea».

«Argazkia ateratzean, nire aurrean zegoena hiltzen ari zen, eta han ezagutu nuen jende asko ere hilda dago».

«Ni ez noa inori digestioa erraztera (...). Batzuetan esaten da irudia gogorra dela, eta ez; gogorra dena da tipo hori hil egin dela».

«Egunkari eta editoreek beste "zentsura" mota bat izaten dute, eta beraiek erabakitzen dute zerbaite jarri edo ez».

jaso dezan nahi izaten dut. Argazkia ateratako tokia iluna bada, nik ezin dut argazki hori argitu, gezurra izango litzateke. Horregatik, ez ditut argazkiak bat ere manipulatu, ez dut ia photoshopik erabiltzen. Beldurra sentitzen badut, beldur hori senti dezala ikusleak; poztasuna jaso badut, berdin.

Gerra kazetaritza aritzen zara. Beharrezkoak dira gatazka eta drama argazki onak ateratzeko?

Ez. Argazki on asko egiten dira inolako dramarik gabe. Adibide piloa eman ditzaket: Magnumekoak ez dira inoiz gerrara joan eta kriston



Andoni Lubaki, kazetari eta fotokazetari urretxuarra.

argazkiak dituzte. Gainera, gerretan ateratzen diren argazkien %90k ez dute ezertarako balio izaten.

"Chris Hondros Nazioarteko Saria" irabazi duzu azaroan, Siriako gerran egindako argazkiekin. Pozik, jasotako errekonozimenduarekin?

Bai, bai, gustora. Hala ere, beti etikoki pintzekin hartu behar den lana da gurea. Kontu handiz ibili behar dugu alde horretatik, jakinda argazkia atezten ari zarenean ikusle pribilegiatua zarela, eta ez parte-hartzaile bat. Argazkia ateratzean nire aurrean zegoena hiltzen ari

zen... eta han ezagutu nuen jende asko hilda dago. Alde gozo eta mingotsa ditu.

Saria jaso ondoren zure kontzientziarekin gatazkak bizi dituzela aipatu duzu hainbat komunikabideetan: 2011n Libian hil zuten kazetariaren izena daraman saria jasotzea, gure begietarako gogorregiak izan daitezkeen argazki batzuk gordetzea, urrunekoak egiten zaizkigun eta identifikatzen ez ditugun pertsonen argazkiak bere gordinean erakustea... Azkenaldian aldatzen ari naiz. Lehengoan hizketan aritu nintzen lagun batzuekin: argazkiak ez badio ezer aportatzen istorioari eta oso

biolentoak badira, gorde egiten ditut eta punto. Hori bai, ezabatu ez ditut ezabatzen. Baina ni ez noa inori digestioa erraztera. Gero, egunkari eta editoreek beste "zentsura" mota bat izaten dute, eta beraiek erabakitzen dute jarri edo ez. Batzuetan esaten da irudia gogorra dela, eta ez; gogorra dena da tipo hori hil egin dela.

Tentsio eta arrisku handiko egoerei nola egiten diezu aurre? Sirian bahituta egon zinen.

Bahiketaren inguruan ez dut hitz egingo. Arriskuak asumitzea dakar nire lanak, baina kontatzea... Ofizioa aukera-

«Gutxien argitaratu den tokian jarriko nuke nik enfokoa: euskal preso politikoen egoera, etxe-kaleratzeak...».

«Indarrak batu ditugu aurrera egiteko. Oso argazkilari gutxi egin dezakete lan erabat *freelance* arituta».

«Asko gustatzen zait jendeak galderak egitea (...). Hitzaldia hasi eta segituan esaten dut beti galderak egiteko, eta ez itzaroteko nik bukatu arte. Solasaldia gustatzen zait».

«Arriskuak asumitzea dakar nire lanak. Ofizioa aukeratzean horrelako gauzak gerta daitezkeela konsziente izan behar dugu».



Argazki honengatik eta Sirian ateratako beste batzuegatik irabazi du Andoni Lubakik 'Chris Hondros Nazioarteko Saria'.

tzean horrelako gauzak gerta daitezkeela konsziente izan behar dugu, eta kito. Argazkiak hor daude eta horiek nahikoa hitz egiten dute.

Horrelako zerbait gertatu ondoren, nola lortzen da lanarekin jarraitzeko animoa?

Nire lana hori da, gustatzen zait eta jarraitu beharrean nago. Taxista batek istripu bat izaten badu... Gehienek ez diote lanari utziko. Azterketa bat egin eta gainditzen ez duenak ere, zer egingo du ba? Hurrengo-arekin segi!

Beste hainbat gatazka ere bizi izan dituzu: Sahara, Libia, Irak... Horien guztien artean, bada modu bereziagoan gogoratzen duzun bizipenik?

Denak dira bereziak, gatazka bakoitza diferentea delako oinarrian, gatazka egiteko moduan... Desberdinak dira. Beti gogoratzen dira gauza puntualak. Baina, bereziki beti gogoratzen dut azkena. Horrelako tokietan lan egitean argazki batzuk hartzen ditugu handik eta hemendik, eta hori gogoan geratzen zait azkenean, hurrengo bat arte.

Kanpoan egiten duzu lan, batez ere, baina baita Euskal Herrian ere. Bertako zein argazki egingo zenuke orain?

Hemen kolaborazio puntualak egiten ditut. Bertso finalean egon nintzen, adibidez, eta eskatzen badidate, koro

bateko partaideei ere atera izan dizkiet argazkiak. Oso jende gutxi dago gerrako argazkiak bakarrik egiten dituenak. Hala ere, hemen ez dut lan askorik egiten eta ez naiz aritzen pentsatzen zein argazki egingo nukeen. Bostok Photo Agentzian badira hiru lagun hemengo lana ondo kubritzen dutenak, eta ikuspuntu desberdinetatik. Nik gutxien argitaratu den tokian jarriko nuke enfokoa: euskal preso politikoen egoera, etxe-kaleratzeak... Komunikabideetan gutxi ateratzen den horretan.

Bostok Photo argazki agentziako sortzaileetako bat zara, Gari Garaialde, Ander Gillenea eta Josu Truebarekin batean. Zein da agentzia honen helburua?

Lau kide gara, eta beste pertsona bat ere aritzen da komertzial lanetan. Egoera berriek batzera bultzatzen zaituzte. Indarrak batu eta aurrera segi. Guk nahi duguna da argazki erreportaritzan egin ildo bat jarraituta. Bakoitza aske da zer eta nola kontatu nahi duen erakusteko, eta horretan gabiltza. Indarrak batu ditugu aurrera

jarraitzeko. Oso argazkilari gutxi egin dezakete lan erabat *freelance* arituta. Denak batzen dira, kasu puntualetan bakarrik bada ere. Agentzian denak autonomoak eta *freelance* gara, baina autonomoek ere batu egin behar izaten dute.

Beraz, zuen proiektu horretan partaide gehiago sar daitezke?

Momentuz, gu ari gara, eta epe motzera ez daukagu ezer pentsatuta. Baina epe ertainera igual gehituko litzateke norbait. Guk lanak begiratzeko ditugu, zein den bere argazkien filosofia.

Agentziako zure kide Gari Garaialdek galdera polita plazaratu du azken egun hauetan: bada euskal argazkilaritzarik?

Eta hala bada, zein da?

Euskal argazkilaritza! Izaten ditugu horrelako eztabaidak. Euskal antzerkia, zinema, literatura, poesia badaude... eta argazkia? Ez da ahozko hizkuntza erabiltzen transmisiorako. Eztabaidan ari gara eta ideia oso onak ari dia ateratzen. Uste dut debate honek ideia politikak aterako direla.

Etorkizun laburrerako zein proiektu duzu esku hartean? Kiev izan daiteke bat?

Biletea esku hartean daukadan arte ez dut ezer ziurtatzen. Gure lana oso aldakorra da. Egoera azkar aldatzen da. Buruan proiektu asko daukat, baina lortu arte... Atentzioa bai, denek ematen didate: Somalia, Sudan, Irak Siria, Kiev bera... Denak jarraitzen ditut, gutxienez, Internetetik, gauzak nola dauden jakiteko. Gogoa badut alde guztietara joateko, baina gauzak ondo pentsatu behar dira, kontaktuak lortu... Enkarguak ere asko iristen dira, eta nik baiezkoa esaten diet gehienei, baina gero, proiektu horietako ehuneko haundi bat ez da aurrera ateratzen. Horregatik, banoala ziur jakin arte ez dut ezer esaten. Gero batzuetan gertatzen da, bi egun barru egiteko duzun hori bertan behera geratzea, eta urtebete lehenago pentsatutakoa ateratzea... Ezin jakin!

Gatazka leku batera joan aurreko prozesua nolako izaten da?

Planifikatzea zaila da. Baina jakin behar duzu, gainetik behintzat, zer gertatzen ari

den toki horretan. Nik, adibidez, literatura ere irakurtzen dut, bertako historia... Baina gauzak oso aldakorak dira: bonbardaketak, *check point*-ak... Onena da, beti, kontaktu on bat lortzen saiatzea. Zer gertatzen den bertakoekin baino hobeto inork ez daki.

Momentuan momentukoa, orduan: oraingoz, hitzaldi batzuk tartean. Beraz, astearteko hitzaldira gerturatzen denak zer jasoko du?

Eskatu didatena! Azken batean, nire esperientzia kontatu. Hala ere, asko gustatzen zait jendeak galderak egitea: zer gertatzen ari den ezagutu ditudan herrialde horietan, gatazken inguruan, edo... Askotan ez dakit zer nahi duten. Ikusleak ere desberdinak dira. Ez da berdina hitzaldi bat ematea jubilatuei, ikasleei, gaztetxe batean, gai baten inguruan lanean dabilen jende akademikoari... Hitzaldia hasi eta segituan esaten dut beti galderak egiteko, eta ez itzaroteko nik bukatu arte. Solasaldia gustatzen zait. Horrek asko aberasten du.

Galderak prestatuta eramateko esango diogu orduan, jendeari! Hori da! ||

☎ TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
☒ FARMAZIAK ● Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA ● GAUR Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Hego mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du: Min.10° / Max.15°
● BIHAR Fronte berri bat iritsi eta euria egingo du. Ekaitza lehortzeko arriskua ere badago. Temperatura beheara, nabarmen: Min.6° / Max.11° (euskalet)

'JOXEAN'S HIL EBEN' FILM LABURRA - BEÑAT ITURRIOZ ZUZENDARIA:

«Oraingoan odol gehiago erabili dugu; aurrekoak falta zuen»

Beñat Iturrioz hernaniarrarekin bildu da Kronika. Arkeologoa eta musikaria da, eta 'Joxean's hil eben' film laburraren zuzendarietako bat. Aurreko astean, Biterin egin zuten aurre estreinaldia eta orain, herriz herri dabilta.

ZONBI karlista eta banpiro jeltzaleen arteko lehia izango da oraingo honetan eta Agirre lehendakaria berpiztuko dute... *Joxean's hil eben* film laburraz ari gara. Filma, Beñat Iturrioz hernaniarrak eta Xabier Padinek zuzendu dute eta aurreko asteko ostiralean egin zuten aurre estreinaldia Biterin, lagunartean, filmean parte hartu dutenen artean. 200 bat lagun elkartu ziren.

Oraindik gauza batzuk konpontzeko geratzen diren arren, emaitzarekin gustora dago Iturrioz. «Hala ere, hori besteek esan behar dute», dio. Eta erabat osatzeko, pelikularen aurretik dijoazten bi trailer faltsu guztiz bukatzea falta zaiela gaineratu du. Agosti Xahorena eta Txerrineitorrena dira.

'Ataun of the dead' filmaren jarraipena

2011 urtean, *Ataun of the dead* film laburra estreinatu zuten Iturrioz eta Padinek eta oraingo hau, film horren jarraipena da. Aurreko film hura Ataunen kokatzen da. Lehendakaritzara aurreneko lehendakari ez nazionalista iristen denean, hirugarren karlistadarako hazia sortu eta bi zientifiko karlistek Zumalakarregi berpizten dute.

Oraingo honetan, zientzialariak, XIXgarren mendean hildako soldadu karlistak lurpetik atera eta berpizten hasiko dira, Zumalakarregi bezala. Zonbi plaga honek Partidu Nazionalista Banpiroko kideen hegemonia politikoa eta biziraupena kolokan jarriko ditu eta Agirre lehendakaria esnatzea erabakiko dute. Zumalakarregi eta Agirrerren arteko norgehiagoka hasiko da, nork aginduko duen erabakitzeko. «Bi bandoek ezin dute elkarrekin bizi. Zonbiak eta banpiroak gauza bera behar dute, giza haragia edo odola. Lehia dago; interes talka bat», azaldu du Iturriozek.

Hernaniarrak, gehienak

Ataun of the dead, Ataun, Hernani eta Adarran grabatu zuten. *Joxean's hil eben*, berriz, bi trailer faltsuak kontuan har-



Agosti Xahoren jantzia Beñat Iturriozek berak egina da.

tuta, Euskal Herriko 17 lekutan grabatu dute. 60 egun behar izan dituzte eta 180 bat laguntzaile tekniko, aktore eta extra. Horietako gehienak, hernaniarrak izan dira.

Padinek eta berak zuzendari lanetan laguntza handia izan dutela ere azaldu du Iturriozek. Oskarbi Sein eta David Larrañagarena, hain zuzen. Ilustrazioak ere beraiek direla gaineratu du.

Efektu gehiago

Aurreneko pelikulatik bigarrena, alde handia dagoela dio Iturriozek: «Aurrekoa mierda bat da. Aspektu guztietatik dago alde: musika, enkuedrea, planoak...». Efektu gehiago ere erabili dituzte oraingoan. «Batez ere, odola. Aurrekoak odola falta zuen. Putzueta harategiarekin ibili gara harremantetan eta zenbaitetan egitazko odola-eta lortu dugu, baina gehiena gezurrezkoa da. Esaterako, txerriaren garuna irudikatzeke, azalorea erabili dugu, odola gainetik botata». Efektuetan, Javi Gonzalez hernaniarraren laguntza sekulakoa izan dela azpimarratu du.

Imaginazioa ere behar,

halako lan batean, eta hori ez dutela falta nabari da. Jantziak beraiek eginak dira.

Hirugarrena ere, buruan

Iturrioz eta Padinen lana trilogia bat da. Buruan dute dagoeneko hirugarren film laburra, baina oraingoz behintzat, lasai egoteko asmotan dira: «Bi urte barru edo ikusiko dugu. Orain beste arlo batzutan aritzeko asmoa dut». Eta hirugarrenaren aurrerapena ere egin du: «Ezker abertzaleko momiak agertuko dira honetan eta Nafarroan kokatuko da, espetro politiko guztia ikutzeko».

Bi arkeologo zinean

Iturrioz arkeologoa eta musikaria da. Padin ere arkeologoa da eta biek ez zuten zine munduan ezer egin, *Ataun of the dead* sortu arte. Eta ez direla batere gaizki moldatzen erakutsi dute.

Hernanin izango da berriz ikusteko aukera. Otsailaren 11n emango dute Biterin, 19:30etatik aurrera. Bestela, emanaldiren bat antolatu nahi izanez gero, idatzi: katihotsak@gmail.com. Informazio gehiago, www.joxeans-hilben.com; eta musika, www.aztibia.bandcamp.com. ■

PUBLIERREPORTAJEA



GARDANBERA EKODENDA

Produktu ekologikoak, terapiak, ikastaroak eta gehiago...

EKODENDA berria zabandu dute Hernanin (Antziola, 2), Gardanbera. Era guztietako produktu ekologikoak aurkituko ditu Gardanberara joaten denak: barazki ekologikoak eta frutak batetik; granelean zereal, lekale eta frutu lehorrak; umeentzako potaok; esne eta yogurtak... Eskaintza berezia dauka zeliakoentzat, makrobiotikoentzat... Pixoihalak eta kosmetika produktuak... Oinetako bereziak... Belardendako gaiak...

Astelehenetik larunbatera irekita dago, eta dendako produktuez gain eskaintzen dira terapiak, ikastaroak eta hitzaldiak: mediku naturista, osteopatia, biomagnetista, yoga, chi-kung, biodantza...

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Etxebizitza eguzkitsua salgai zentroan. Oso egoera onean, 90 m², 3 logela, sukaldia, komuna eta egongela. Ilogailua badu. Pana parkera begira. Oso polita. Deitu: 648 225 090

Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldia, egongela-jangela, 100m². Trasteleku eta garajearekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



SALESIANOS urnieta
SALESIARRAK

salesianosurnieta.com DBHko Informazio bilera
943 551 789 Otsailak 1, 11:00etan